

## Uztailak 6, astelehena: Okendo kalean dagoen Herritarren Arretarako bulegoa Sekundino Esnaola kalera aldatuko da

Egokitze lanak egin behar dira Donostiako Okendo kaleko 20. zenbakian kokaturik dagoen Herritarren Arretarako bulegoan. Lau hilabete inguru iraungo dute egokitze lan horiek.

Hori dela eta, **uztailaren 6tik aurrera**, herritarrei Grosen emango zaie arreta, Sekundino Esnaola kaleko 10. zenbakian.

Hala ere, Udal Zergen Zerbitzuak (ondasun higiezinaren gaineko zerga, katastroa, eta jarduera ekonomikoaren gaineko zerga) ez dira tokiz aldatzen eta Okendo kalean jarraituko dute, 20. zenbakiaren 0 solairuan.

Laburbilduz:

Sekundino Esnaolako bulegora joan beharko duzu tramite hauek egin nahi badituzu:

- Oinarrizko ahozko kontsulta tributarioak
- Agirien sarrera erregistroa
- Kexa eta iradokizunen aurkezpena
- Aitorpen eta zerga ereduaren aurkezpena (JEZa eta zentsu aitorpenak barne)
- IFZ txartelak
- Zerga ziurtagirien tramitazioa
- Identifikazio etiketen tramitazioa
- Jakinarazpenak eta ordainketa agiriak
- Pasahitz operatiboa
- Ordainketa zatikatuen tramitazioa
- Sinadura elektronikoaren eskaerak

Aldiz, Okendoko bulegora joan beharko duzu beste tramite hauek egin nahi badituzu:

- JEZari buruzko kontsultak. Alta, baja eta aldaketa aitorpenak **Sekundino Esnaolako bulegoan** edo herritarren arretarako beste edozein bulegotan **aurkeztu behar dira**.
- Katastroari buruzko kontsultak. Landa-lurren eta hiri-lurren datu katastralak eguneratzea.
- Ondasun higiezinaren balorazioa, ondorio fiskalak dituenak
- OHZren kudeaketa. Kontsultak eta aldaketak ondasun higiezinaren gaineko zergen, hiri-lurretan nahiz landa-lurretan.